


KIRATSA

Testua: Eider Adeletx
Irudiak: Iban Illarramendi

XVI. ETXEPARE SARIA (2022)

ISBN 978-84-9172-927-7. Pamiela

Kartoi gogorrean koadernatua. 20 x 26 cm. 40 or. 15 €



«Au-au! Nor da hau?

Ku-ku! Zuri so nago,

Kukuso bat naiz.

Au-au! Honek nola aurkitu nau?

Ku-ku! Ki-ki!

Zure atzetik ibili naiz, Pantxi!...»

Kiratsa album ilustratuak Nimi kukuso edo arkakuso baten abenturak ditu ardatz eta usain onei eta txarrei buruzko gogoeta plazaratzen digu: zer den usain, zer lurrin, zer kirats... Kukusoa Pantxi txakur dotorearengana iritsi da eta biak, triska, zapart eta jauzi, usain bila abiatuko dira.

Testua ezin egokiagoa da album baterako: laburra, errimaduna, aberatsa eta onomatopeietan oinarritua. Ezin aproposagoa errezitatzeko eta dibertitzeko. Ilustrazioak dotoreak dira, sofistikatuak —hainbat oihartzun eskaintzen dute, hala nola René Magritteren zeruenak— eta, batez ere oso narratiboak eta musikaltasunez beteak.

Testuaren eta ilustrazioen arteko uztarketa goi mailakoa da eta esan daiteke idazle-ilustratzaileek album, ilustratu, jostagarria eta harmonikoa lortu dutela, irakurleentzako benetako oparia, behin eta berriro irakurtzeko eta usaintzeko gogoia emanen duena.

■ **Gaia:** usaimenak norberarengan sortzen dituen sentzazioak.

■ **Adin egokia:** 4 urtetik aurrera.

■ **Nabarmentzekoak:** kontakizun errimatu, gustuen sujetibitatea (zer da usain gozoa?, zer kiratsa?), umorea, ezberdinen arteko adiskidetasuna, kolore lauen erabilera, mugimendua irudikatzen moduak (puntuak, binetak...)

Eider Perez Adeletx (1995, Pasaia Trintxerpe).

Hainbat testu argitaratu ditu *Lekore* aldizkarian, Txakur Gorria sormen kolektiboaren talde-lanetan eta zenbait literatur sariketen bildumetan.

Aurkezle, gidoigile eta sormen-irakasle lanetan aritu izan da eta irudimenaren munduan murgilduta lan egiten du geroztik. Spoken Word edo Hitz Esaneko hainbat emanalditan aritua da, poesia alorrean

Iban Illarramendi Echabe (1973, Zarautz)

Ilustratzaile eta diseinatzaile grafikoa. Argitaletxeen eta publizitatearen munduan egiten du lan batez ere. Euskarri ugaritarako egiten ditu ilustrazioak; kartelak, skate-oholak, erakusleihoak, diskoen azalak edo arropa. Gainera, ilustrazio esperimentaleko tailerrak ematen ditu haurrentzat, eta hainbat erakusketa indibidual eta kolektibo egiten ditu.

[<https://www.instagram.com/iban.illarramendi/>]

<http://www.etxeparesaria.eus/>



Tel.: 948 326 535 / soltxate@pamiela.com

www.pamiela.com

